

2. Txosten Prospektiboa

Etorkizuneko agertokiak

Genero-berdintasuna

2030 Agendako Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH) lortzeko bost urte baino ez falta diren arren, 5. GJH ("Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea") funtsezko ardatza da etorkizuna bidezkoa eta jasangarria izan dadin. Baina ahalegin globalak egin arren eta zenbait arlotan aurrerapenak egon badira ere, herrialde askotako egungo egoera egokia izatetik oso urrun dago, atzerapausoak eman dira eta helburua lortzea arriskuan jartzen duten erronkak ari dira azaleratzen. Txosten honetan 5. GJH horrek aurrera egiteko eragina (ona nahiz txarra) duten faktoreak jaso dira, eta egindako aurrerapenak finkatzeko eta gaurtik 2040ra Euskadin genero-berdintasuna sustatzeko egin ditzakegun estrategiak ere bai.

Etorkizuneko ariketa hau egiteko, Deustuko Unibertsitateak eta Alboan Fundazioak ad hoc lantalde bat antolatu zuten genero-berdintasunari buruz "Euskaditik Mundura: hurbilketa kritikoa Euskadiko 2030 Agendara begirada global batetik eta giza eskubideen ikuspegitik" baterako proiektuaren baitan. 2024-25 ikasturtean eratu zen taldea eta mundu akademikotik eta hirugarren sektoretik zetozen hamalau kide zituen, denak generoaren eta desberdinkeriaaren arloan espezializatuak. Taldean ezagutza sortzeko ibilbidea etorkizuneko agertokiak planifikatzeko egokitu zen metodologia baten bidez garatu zen.

Jarraian daude lehenengo saioetan identifikatutako aldaketa-faktoreak, taldeak hautatutako bi faktorerik eraginkorrenak gurutzatzearen ondoriozko agertokiak eta etorkizunean nahi dugun agertokia lortzeko gauzatu beharreko estrategiak: "cuidanía" (gaztelaniazko *cuidados eta ciudadanía* hitzen arteko hitz-jokoa) ideiaaren inguruan artikulatzen den gizarte feminista eta inklusiboa.

Aldaketa-faktoreak identifikatzea: 2040 zerumuga

Jarraian hemendik 2040ra genero-berdintasunaren eboluzioa baldintzatuko duten faktoreen deskripzioa dago. Aldaketa-faktore horiek ekonomikoak, politikoak, sozialak, ingurumenekoak edo teknologikoak izan daitezke eta horiek aztertuz gero joerak, zalantzak eta balizko eraginak identifikatu ahal izango dira etorkizuneko agertokietan. Taldeak identifikatutako faktoreak banaka eta taldean puntuatu zituzten zalantza-mailaren eta eragin-mailaren arabera eta ondoriozko baremazioak honako ordena hau ezarri zuen faktoreak lehenesterako orduan (garrantzia handienetik txikienera).



Faktorea	Deskripzioa
Zaintzen ereduaren krisia	Krisitik irtetea zaintzeki gizartean balio handiagoa izatearen, zaintzekin zerikusia duten enpleguak duintzearen eta gizonezkoek alor horretan partaidetza handiagoa izatearen mende dago.
Gastu publikoa hazi	Genero-ikuspegia txertatu gastu publikoan eta finantzaketa hazi egoera zaurgarrian eta prekarioan dauden emakumeak artatzeko.
Gizartearen eta komunitatearen partaidetza sustatu	Itun berriak egin mugimendu feministen, emakumeen taldeen eta giza eskubideen defentsako mugimenduen artean.
Politika publikoak	Administrazioko alorrak genero-berdintasunean espezializatzea eta trebatzea giltzarria da gizon eta emakumeen arteko ekitatea bermatzeko politika publikoetan.
Balioetan hezi	Hezkuntza formalean, informalean eta familiaren sozializazioan curriculum hezitzaileetan genero-berdintasuna txertatzeko gaitasuna.
Joera atzerakoia	Balizko atzerakadak genero-berdintasunean polarizazio politikoak, eskuin-muturraren gorakadak eta egia-ondorenen testuinguru mediatikoak markatutako testuinguruan.
Esparru juridikoa	Azken urteetako lege-arloko aurrerapenak horiek betetzeko beharrezko bitartekoekin batera joan behar dute (jarraipena, ikuskapenak, zehapenak).
Genero-rolak	Genero-rol tradizionalak zalantzan jarri dira azkenaldian eta femeninoaren eta maskulinoaren birkontzeptualizazio berriak agertu dira, ekoizpen- eta ugalketa-lanetan dituzten inplikazioekin.
Sexua/generoa kontzeptuen haustura	“Emakume” izatearen esanahia ikuspegi inklusiboan berkontzeptualizatu (trans pertsonak barnebidu...) eta horrek politikak eta baliabideak eskuratzeko dituen ondorioak.
Garapen teknologikoa	Iraultza digital berriak eta adimen artifizialaren hedapenak genero-desberdinkerietan duten eragina.
Klima-aldaketa	Klima-aldaketak eragin desberdinak izatea generoaren arabera eta horri lotuta, emakumeek erabakiak hartzeko aukera izatea, zaintzen ideia zabaltzea eta ingurumena sartzea.



Etorkizuneko balizko agertokiak

Identifikatutako aldaketa-faktore horietatik abiatuta, bi ardatzi eman zitzairen lehentasuna etorkizuneko agertokiak pentsatzeko:

Konponbidea zaintzen ereduaren krisirako

Polaritate negatiboa: areagotu egin da emakumeen esplotazioa eta genero-desberdinkeria, zaintzek erabat feminizatuta egoten jarraitzen dute eta eremu pribatura mugatuta daude, genero-rol tradizionalak, emakume etorkinen azpienplegu prekarioa eta enpleguaren prekarizazioa indartzen ditu horrek.

Polaritate positiboa: hori lortzeko gizarte-mailan birbalorizatu behar dira mendeko pertsonen zaintzak, esparru honetako enpleguen eta lanen duintasuna eta horiek emakume eta gizonen artean modu ekitatiboan banatzea (gizonezkoen partaidetza hazita).

Sektore publikoaren rola genero-berdintasunean

Ardatz honek aurreko atalean adierazitako bi faktore laburtzen ditu. Politika publikoei buruzkoa eta berdintasunaren alorren gastu publikoa haztea, esparru juridikoetan adierazitako berdintasun formala egiazko berdintasun bihurtzeko. Horren ondorioz, sektore publikoaren egitekoa bi polaritateren artean mugitu ahal izango litzateke:

Polaritate negatiboa: gastu publikoa murriztu berdintasunaren alorrean, prekarietatean eta baztertuta bizi diren emakumeen arretan gunea jarritako politika publikoak kendu, genero-berdintasunean espezializatutako pertsona-kopurua murriztu administrazio publikoetan, genero-berdintasuna zuzentzeko baiezko ekintzei zilegitasuna kendu.

Polaritate positiboa: genero-ikuspegia duten aurrekontuak eta egoera zaurgarri eta prekarietate handienean dauden emakumeentzako baliabide publikoak eta osasun-arlokoak handitu; administrazio publikoek rol aktiboa izatea genero-berdintasuna sustatzerakoan eta zaintza-ereduak indartzerakoan.



Bi aldagai horien gurutzaketatik lau agertoki sortzen dira:



Puntuaziorik altueneko bi faktoreak gurutzatuz gero, bi ardatzen inguruan egituratzen diren balizko lau agertoki ditugu: ardatzetako batek zaintzen eredua irudikatzen du eta alor honetan gizonen eta emakumeen erantzukidetasunari egiten dio erreferentzia; eta besteak sektore publikoaren rola eta berdintasun-politiken gobernantza irudikatzen ditu. Bi faktore horiek konbinatzearen arabera izango dira agertokiak, eta eboluzioaren arabera etorkizun oso desberdinak izango dira.

4. agertokiak bi faktoreen garapena positiboan konbinatzen du –zaintzetan erantzunkidetasun handiagoa eta babes publikoa berdintasun-politikei– eta nahi den agertokitza hartu zen. Eredu hau adierazteko “Cuidadanía” neologismoa erabili zen gaztelaniaz, zaintzak eta herritarrak kontzeptuak uztartzen baititu, gaztelaniaz.

“Cuidadanía” horretan garapen sozialak politika publikoen babesa du eta pertsona erdigunean kokatzen du, giza eskubideak bermatzen ditu eta zaintza eskubidea eta erantzunkidetasun kolektiboa dela aitortzen du, Estatuak, komunitateek eta etxeek modu ekitatiboan mantendua eta genero-berdintasuneko baldintzetan. Paradigma ekonomizista gainditzean, “cuidadanía” horrek gizarte feminista eta inklusiboa bultzatzen du, mendekotasunik gabea, zaintzak balio egituratzailea du eta horrek gizarte-kohesioa areagotzen du, demokrazian sakontzen du eta gizarte-justizia, duintasuna eta ongizatea sortzen ditu pertsona guztientzat.

Nahi den etorkizuna eraikitzeko estrategiak

Hauek dira 2. agertokirantz ibiltzeko eman beharko genituzkeen urrats nagusiak:

Genero-berdintasunean eta zaintzetako erantzunkidetasunean trebatu haurtzarotik. Eduki horiek zeharka sartu hezkuntzako curriculumean etapa guztietan, zaintza partekatua eta genero-estereotiporik ezaren kultura sustatzeko.

Zaintzak gizarte- eta ekonomia-mailan birbalorizatzea. Zaintza bizitzari eusteko baterako ezinbesteko ondasuna dela aitortzea, nahiz etxean nahiz esparru profesionalean.

Zaintzako enpleguak duintzeko legeak egitea. Zaintzen sektoreko lan-baldintzak hobetzea, bidezko soldatak, laneko eskubideak, gizarte-babesa eta aintzatespen profesionala bermatuko dituzten legeen bidez.

Zaintzen osoko politika sustatzea. Zaintzen sistema publiko irisgarria, unibertsala eta kalitatezkoa garatzea, beste zerbitzu batzuekin (osasuna, hezkuntza, etxebizitza eta enplegua) artikulatuta.

Gizarte-kontakizunak kulturaren bidez eraldatzea. Kulturako produktuak (zinema, literatura, komunikabideak, artea) sustatzea, zaintzaren balioa ikusgai jartzeko, rol tradizionalak zalantzan ipintzeko eta narratiba berri inklusibo eta ekitatiboagoak sustatzeko.

Zaintzei buruz sortutako ezagutzak eta ikerketak hedatzea. Ebidentzia zientifikorako sarbide publikoa bermatzea eta zaintzaren inguruko praktika onak ikusgarri egitea, politikak informatzeko eta herritarrak sentsibilizatzen.

Belaunaldien arteko elkartasuna sustatzea. Belaunaldien arteko elkartrukea, elkarren babesa eta elkarbizitza sustatuko duten gunean eta programak sortzea, eta komunitatea egiterakoan duten balioa aitortzea.

Administrazio publikoarekiko konfiantza indartzea. Gardentasuna eta kontuak ematea sustatzea eta ustelkeria eta gezur instituzionala zigortzea, gobernantza legítimoa eta denon onarekin konprometitua lortzeko oinarritzko baldintza gisa.

Ikuspegi intersektionala duten berdintasun-politikak sustatzea. Pertsonen generoaren, klasearen, jatorriaren, sexu-orientazioaren edo migrazio-egoeraren arabera dituzten askotariko esperientziak, diskriminazioak eta beharrak aitortuko dituzten eta erantzungo dieten politika publikoak diseinatzea.

Komunitateko lidergo berriak sustatzea. Lankidetzan, enpatian eta zaintzan oinarritutako lidergo-formak babestea, gizarte-ehuna indartu eta herritarren partaidetza sustatuko dutenak.

Ikusezin bihurtutako kolektiboen lidergoa aitortu eta indartzea. Emakume etorkinen eta zaintza komunitarioko kultura duten beste kolektibo batzuen ekarpena ikusgai jartzea, gizartea antolatzeko eredu alternatiboen erreferente gisa.

Maskulinitateak birdefinitzea, autokritikatik eta erantzunkidetasunetik. Gizonak hausnartzera gonbidatzea dituzten pribilegioei buruz eta zaintzen sisteman duten rolari buruz, maskulinitatearen eredu berdinzaleak, afektiboak eta erantzunkideak sustatuz.



Aldaketaren protagonistak

Zaintzen duten pertsonak: zaintzen sistemako protagonistak; horien lana aitortu, baloratu eta babestu egin behar da, ordaindua den gorabehera.

Zaintzen duten gizonak: genero-estereotipoak apurtzen dituzte eta ezinbestekoak dira zaintzen lanak behar bezala banatzeko aurrerapausoak emateko.

Familiak: eguneroko zaintzen funtsezko espazioak; gainkarga, bereziki emakumeena, saihestuko duten politika publikoak behar dituzte.

Etorkin zaintzaileen kolektiboa: zaintza-sisteman funtsezkoa, kolektibo honen lana ikusgai bihurtu behar da, duintasuna eman eta babestu.

Antolatutako herritarrak: eskari kolektiboak bideratzen dituzte eta parte-hartze aktiboa dute zaintzako komunitate arloko irtenbideak eraikitzerakoan.

Auzotarrak: eguneroko eta gertuko babes-sarea, egiteko garrantzitsua izan dezake zaintza komunitarioan eta inguru seguruak sortzeko.

Komunitatea: espazio kolektibo honetan sortzen dira familiatik haragoko babes-sareak, elkartasunezkoak eta lagun egitekoak.

Boluntarioak: zaintza-sareak osatzen dituzte, denbora eta lagun egitea eskaintzen dute elkartasunetik, baina ez dira izan behar estatuaren erantzukizunen ordezkariak.

Gizarte-mugimenduak: egiturazko aldaketa sustatzen dute eta zaintza ikusgai jartzen dute eskubide kolektibo eta partekatutako erantzukizun gisa.

Mugimendu feminista: justizia soziala eraikitzeko eta eredu berdinzaleagoak eraikitzeko ardatz gisa zaintza jartzeko errebindikazio historikoaren funtsezko eragilea.

LGTBIQ+ mugimendua: zaintzeko formei buruzko askotariko ikuspegiak eskaintzen ditu, eredu familiar tradizionalak zalantzan jarri eta sare alternatiboak sustatuz.

Elkarteak: zaintzaileen eta eskura dauden baliabideen arteko zubiak dira, laguntza eta prestakuntza ematen dute eta elkartasun-sareak sortzen dituzte.

Hirugarren sektorea: administrazio publikoarekin lankidetzan aritzen da zaintza-zerbitzuak hornitzeko, bereziki bazterkeria edo zaugarritasuna dagoen testuinguruetan. Genero-heziketa/-prestakuntza: funtsezkoa iruditeriak eraldatzeko eta profesionalak eta herritarrak erantzunkidetasunean eta berdintasunean gaitzeko.

Sektore pribatua, erakunde pribatuak: zaintza-zerbitzuak kalitatearekin eta lan-baldintza onetan eskain ditzakete, eta lan-eremuko erantzunkidetasuna sustatu.

Administrazio publikoa: zaintzarako eskubidea bermatzearen arduraduna, politiken, baliabideen, azpiegituren eta arauzko esparruen bidez.

Osasun-sistema: zaintzarekin zerikusia duten osasun-arloko beharrak artatzen ditu, eta beste zerbitzuekin koordinatu behar da osoko arreta eskaintzeko.

Hirigintza, arkitektura: zaintza erraztu edo zaildu egin dezaketen espazioak diseinatzeko dituzte; planifikazioan genero-ikuspegia eta irisgarritasuna sartu behar dira.

Laneko eragileak (sindikatuak eta patronala): zaintzen sektoreko lan-baldintzak definitzen dituzte eta kontziliazio- eta erantzunkidetasun-neurriak sustatzen dituzte lanean.

Belaunaldi arteko elkartasuna: belaunaldien arteko elkar-zaintza sustatzen da, helduen eta gazteen esperientzia eta premiak baloratuta.

Alderdi politikoak: zaintzen sistema publikoa eta erantzunkidea bermatzeko lege esparruak eta aurrekontuak sustatzeko gaitasuna dute.

Komunikabideak: gizarteak zaintzari buruz duen ikuspegian eragina dute eta ikuspegi hori balorizatzen eta eredu parekideak sustatzen lagundu dezakete.





Hauak finantzatu dute:

